



Belaunaldi berriaren ordua oholtza handian

Aitor Bizkarra abadiñarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarrak Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean kantatuko dute bihar. Pagonabarragak estreinako finala du, 21. urteaz; Bizkarra, otera, bigarren finala izango du, 25. urteaz. Kantukide edukiko dituzte Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Jone Uria, Nerea Ibarzabal, Xabat Galletebeitia eta Aitor Etxebarriazarraga. Bilbao Arenan izango da finala, 17:00etan. • 2-3



Arrate Mardaras abadiñarrak 'Poli nire robota da' ipuina argitaratu du

Haur literatura | Ipuinak robot baten eta ume baten arteko hartu-emana du ardatz eta "ez hain urruneko" etorkizun batean kokatuta dago. Mardarasen lehenengo ilustrazio liburua da • 24

Algako eta Inervoleko beharginek protestak hasi dituzte

Ekonomia | Zaldibarko Inervol eta Abadiñoko Alga enpresetako beharginek greba mugabakoa hasi zuten abenduaren 9an. Protestek segida izan dute asteon. Langileek diote lan karga "handia" egon arren, enpresen egoera ekonomikoa "larria" dela. 180 bat familia daude egoera horretan. 19

Gabonetako gehigarria

"Uda amaieran hasten gara pentsatzen Gabonetako erakusleihoa zelan apaindu"

Gabonak | Durangoko Mancisidor erloju eta bitxi-dendak 'Intxaur-hauskailua' ipuinean inspiratuta dekoratu du erakusleihoa. Mimo handiz dekoratu dute, lanari uda amaieran ekingia. Maite Mancisidor arduradunaren berbetan, gehiago ala gutxiago, herriko dendariek egiten dute ahalegina erakusleihok Gabonetako apaingarri jantzeko. "Ahalegin horri eskerrak herria askoz ere politago dago, erakusleihok argitsu daude, erakargarriago. Eta kaletik goazela denoi gustatzen zaigu horrelakoak ikustea" • 18





Bizkaiko Bertsolari txapelketako zortzi finalistak Moises Enbeita eta Joseba Etxebarriagaz batera.

"Txapelketak ez du erabakitzen zein den bertsolaria eta zein ez"

Aitor Bizkarrak eta Gorka Pagonabarragak Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean abestuko dute bihar, Bilbao Arenan

BERTSOA • IGOR GALARZA

Bilbao Arena, zapatu arratsaldean. Zortzi protagonista, oholdza handi bat, eta areto erraldoi bat. Gutxiak usteko du zortzi horiek barrunbe guztiak asaldatzeko gai izango liritekeenik inongo musika tresna, saskibaloiko uztai edo aizkorarik barik. Baina hori du Bizkaiko Bertsolari Txapelketak: ezer ere ez da arrunta. Txapelketak bere oholdza nagusia zapalduko du bihar, 17:00etan hasita. Eta zapatu arratsaldeko zalapartaren errudun bi, Durangaldekoak: Aitor Bizkarra Ruiz (Abadiño, 1996) eta Gorka Pagonabarraga Agorria (Durango, 2000). Kantukide izango dituzte azken txapelduna den Onintza Enbeita Maguregi, 2016ko txapeldun Etxahun Lekue Etxebarria, Jone Uria Albizuri, Xabat Gallettebeitia Abaroa, Nerea Ibarzabal Salegi eta Aitor Etxebarriazarraga Gabiola. Txapela Moises Enbeita eta Joseba Etxebarriak jantziko diote txapeldunari. Enbeita eta Etxebarria aukeraturata, talde antolatzailea omendu gura izan dute.

Pagonabarragak lehenengo finala du, 21 urte baino ez dituela. 2020ko irailean hasi zuen txapelketa, aurre-

kanporaketetan, eta saio hartatik urtebetera berrekin zion lanari. Kanporaketako eta finalerdiko saioak irabazita, Etxebarrian zuzenean finalean abesteko txartela eskuratu zuen. Bizkarraren kasuan, 25 urte-gaz bigarrenez zapalduko du Bilbao Arenako oholdza. 2018ko finalera helduta eskuratu zuen txapelketa honetako finalaurrekoetan hasteko eskubidea. Bigarren geratu eta gero, azken saiora arte itxaron behar izan zuen puntuazio bidezko sailkapena ziurtatzeko. Kontuak kontu, hutsetik hasiko dira finalean. Bilbao Arenan egindako prentsaurrekoaren ondoren berba egin genuen biekin.

Kiroldegiko aulkietan jesarrita gauda. Oholdza ipini barik dago oraindino. Ederra da, gero.

Aitor Bizkarra: Esango nuke plaza ezin politagoa dela. 4.000 lagun bilduko dituen arren, plaza bera da bildua eta ez du hoztasunik transmititzen. Oso oroitzapen ona daukat aurreko finalekoa, eta gogoratzen dut zelan sumatzen nuen publikoa gure gainean zegoela. Aurten ere antzeratsu izango dela uste dut,

maskarak maskara, baina plaza ederra izango da, seguru.

Gorka Pagonabarraga: Aurrekoetan publikoan egon izan naiz, eta publikotik igartzen da Aito-

“Ondo etorri zait lehia urtebete atzeratzea. Txapelketa iaz izan balitz, ez nuen emango aurten eman dudana maila”

GORKA PAGONABARRAGA

rrek orain hiru urte oholdzatik sentitu zuen berotasun hori. Oso plaza batua da, leku txikian jende asko sartzen dena. Azken asteetan beldur apur bat eman dit Bilbao Arena honek, baina orain zapaldu eta ikusi dudala, sekulako gogoia sartu zait oholdza gainetik berotasun hori sentitzeko. **Zein gorputzaldigaz etorriko zarete?** **G.P.:** Ni azken aste bietan nahiko gorabeheratsu ibili naiz. Gainerako finalaurreko biak entzunda

beldurra eta zalantza sartu zaizkit, baina orokorrean nagusitzen zaizkidan sentsazioak poza eta ilusioa dira. Gaur asko puztu zaizkit sentsazio horiek, Bilbao Arena ikusita. Zapatuko saiorako gogotsu eta topean helduko naiz. **A.B.:** Niretzat ere gorabeheratsua izan da. Pentsa ezazu: finalerdiko data orain dela urte eta erdi neukan ipinita. Orduan, azaroaren 27ko asteburuan kantatu behar nuen, baina 2020an. Eta urtebete geroago kantatu dut. Bien bitarte hori guztia itxaronaldia izan da, eta ez da denbora guztian erraza izan. Baina, tira, eutsi diogu, eta pilaturiko tentsioak tentsio, aurre egin diogu finalaurrekoari eta hemen gaude.

Durangaldeko bertsolari batzuk finaletik kanpora geratu dira: Miren Amuriza, Txaber Altube, Eneko Abasolo 'Abarkas'...

A.B.: Ez sailkatu izanaren pena dugu. Mirenegaz ez dugu entrenatu, baina berdin hartu dugu pena, urte askoan finalean egon delako eta bertsolari handia delako. Eneko gaz eta Txaberre-gaz entrenatu dugu, eta badugu

pena. Batez ere Txaberregaitik, Enekok badaki finala zer den eta oholdzetan ibilbide luzea egin du jadanik. Baina Txaber ere oso bertsolari handia da. Gorka lehenengo finalerdian garaile izanda eta nik bigarren saioan oso puntuazio altua lortuta, bagenekien biok egongo ginela finalean. Beraz, Larrabetzura 'hat-trick'-a lortzeko esperantzagaz joan ginen eta gure ilusioa zen bera ere sailkatzea. Penatuta geratu ginen.

G.P.: Txapelketa horixe da, lehia bat da, eta badakigu zertara gatozen. Baina honen guztiaren garrantzia erlatibizatu beharra dagoela uste dut. Txapelketak ez du erabakitzen zein den bertsolaria eta zein ez. Bata finalera sailkatu izanak eta bestea ez, horrek ez du ezer esaten pasatu ez denagaitik. Kanpoan geratu dena sartu denaren besteko bertsolaria da.

Gorka, zuk 2020ko irailean ekin zenion txapelketari. Askok aldatu da ordutik Gorka pertsona eta Gorka bertsolaria?

G.P.: Gorka bera ez da askorik aldatu, pandemiak denoi utzi digu eragin bat, bai, baina askorik ez. Bertsolari dagokionez, esango nuke ondo etorri zaidala lehia urtebete atzeratu izana, urtetik urtera hobetzen noan sasoiaren nagoelako. Txapelketa iaz izan balitz, seguruenik ez nuen eman gero aurten eman dudana maila.

**Aitor, lehenengo finalagaz alderatu-
ta zelan ekingo diozu bigarrenari?**

A.B.: Aurrekoan ustekabean pasatu nintzen finalera, grina baneukan arren. Aurtan, ostera, pasatzera etorri naiz. 2018an, finalerdian lasaia nengoan eta finalak gehitxoago ikaratu ninduen, nahiz eta ez neukan ezer ere galtzekorik. Baina aurtan ere ez dut ezer galtzeko, eta finalerdietara baino gorputzal-di hobeagaz joango naiz.

Ez duzue ezer galtzekorik, baina badakazue helbururik?

G.P.: Txapelketako solemnitaterik eta presioa ahaztuta abestu gura nuke. Etxebarriko finalerdian arantza hori geratu zitzaidan, ez nintzen eroso sentitu ofizioetan, ezin izan nuen gozatu. Finalean sekulako aukera dut, kide onak izango ditut eta hori aprobetxatu gura nuke. Eta hortik, ahalik eta saiorik boro-bilena osatzera.

A.B.: Ni ere nahiko lotuta ibili nintzen Galdakaon, nahiz eta ondo joan zen. Aurreko finalean zutik eutsi gura nion saioari; aurtan goiari eutsi gura diot.

**Nahiko lotuta ibili
nintzen finalerdian.
Aurreko finalean zutik
eutsi gura nion saioari;
aurtengoan goiari eutsi
gura diot**

**Txapelketako maila asko igo da. Ze-
lan ikusi duzue zuek?**

G.P.: Orain arteko txapelketak oholtzatik behera bizi izan ditut, eta, beraz, ezin dut iritzi "objektiborik" eman.

A.B.: Mailari begiratu, lurralde guztietako txapelketetan (Nafarroan, Xilaban, Gipuzkoan eta Araban) gora egin duela ikusi da. Batez besteko maila gora badoa, goi mailak erreleboa izango duela esan gura du.

Honaino heltzeko, zein puntutaraino izan da bertso eskola garrantzitsua?

G.P.: Bertso eskolaren garrantzia ezinbestekoa izan da, gure ibilbidearen zentroa. Metodo aldetik ez dugu ezer arrarorik egin, baina intentsitatea handia izan da. Udazkena buru-belarri igaro dugu, eta bere fruituak eman ditu. Beharbada gehiago emango ditu oraindino.

A.B.: Bai, esango nuke orain dabilela fruituak ematen. Nire kasuan, 2018tik gaur arteko ibilbiderik zentzuzkoena plaza-rik plazakoa zen, plaza ibilbide intentsoagoa izatea. Baina ez da horrela izan, pandemia bat



Ezkeretik hasita, Aitor Bizkarra eta Gorka Pagonabarraga.

dugula medio. Hortaz, bertso eskolak zentraltasuna irabazi du. Lehenago ere bazuen pisu espezifiko handia, baina handiagotu egin da egoera dela eta. Asko elkartu gaitu. "Aizu, bertsoan nonbait egin behar badugu, hementxe egin behar dugu", esan dugu. Oso garrantzitsua izan da. Finalerdietan beste sari bat eskuratu zenuten: Datorren urteko Euskal Herriko Txapelketan abestuko duzue [irri egin dute biek].

G.P.: Beharbada ez da saririk handiena, Bilbao Arenan abestea gauza handia delako. Baina garrantziaren aldetik, saririk potoloena da, Euskal Herrikoan kantatzeak motibazioa emango digulako hemendik eta hurrengo udazkenera arte. Nik badakit datorren urtea bertsoarako gogoz igaroko dudala Euskal Herriko Txapelketaren aitzakian. 21 urteagaz aukera hori edukitzea eta motibatuen nagoen sasoian izatea sekulako oparia da.

A.B.: Bai, kasualitatez lehenengoz finalera sartu nintzen txapelketak ez zuen balio Euskal Herriko Txapelketara sailkatzeko. Polita da, Gorkak esan duen haritik, gauden adin gaztean oso ziklo polita izango delako, azken lau urteetatik hirutan txapelketetan kantuan arituko garela. Aukera polita dugu bertsoan hobetzeko, plazan errotzeko eta eskaparate modura baliatzeko.

Egin gura duzue aurreikuspenik?

A.B.: Kontuz ibiltzeko Gorkagaz [Pagonabarragak barre egin du]. Hau ANBOTOn ale honetan geratuko da eta urte batzuk barru jendeak esango du: "Hara, Bizkarrak asmatu zuen".

Ate Irekiak

Olgetan hazi eta hezi
Eskatu zure hitzordua, zure zain gaude

2021a amaitzean da. Urte berezi eta desberdina, gure ohitura eta egiteko modu batzuk aldatu dituen. Ikastetxeak, aldiz, oasi txiki bihurtu direla esan dezakegu. Oasi horietan ziurtatu dugu gure haurrak komunitatean garatu direla, euren berdinekin elkarrekin ahal izan dutela eta lortu dugula haien hezkuntza eta garapen integrala ahalik eta gutxien ahultzea.

Burbiila-taldeei eusteko eta maskara etengabe erabiltzeko betebeharrak gain, San Antonion ez da gora-beherarik izan. Ohiko proiektuak eta jarduerak aurrera eramatea lortu dugu, ingurune seguru eta osasungarrian.

Normalkuntza taldeak gure ikasleentzako ingurune eskualduna bermatu eta eguneroko Euskeraren eguna izan dadin lan egin du. Euskararekiko maitasuna eta konpromisoa adieraziz.

Eskolan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko lanean ari da Hezkidetza taldea. Azaroaren 25ean, indarkeria matxistaren aurka altxatu ginen, eta argi utzi genuen EZ beti dela EZ.

Beste herrialde batzuekin batera proiektu bat garatu du Internalizazio taldeak, eta Europa mailan errekonozimendua jaso du. Ez gaude isolatuta, mundura irekitzen gara eta beste ikastetxe eta kultura batzuekin lankidetzan ari gara.

Naturak ez du bere jardura murriztu pandemian, eta beraz, ez dugu alde batera utzi ingurumen-arazoaren aurrean egiten dugun sentsibilizazio-lana. Plastikorik gabeko asteak ohitura-aldeketa bat ekarri du, eta «osteguna fruta eguna» ere finkatu egin da. Eskolako baratzeko lana ere ez da eten, leixuek ez dutelako COVID-19a ulertzen.

San Antonion ez da etenik egon eta buru-belarri jarraitu dugu lanean: kanpaina solidarioak eta balioetan lan egin dugu, garapen jasangarriaren helburuei buruzko hausnarketa sakonak egin ditugu, haur-hezkuntzako jolastokiak metodologia berrietara egokitu ditugu...

Gure jolastokiaren aldeko apustua egin, eta Haur Hezkuntzako jolastokiak protagonista bihurtu ditugu, ikasgelen parte diren ikasuntza-espazio berri bihurtuz. Agertoki pribilegiatua eta funtzionala dira gure txikien hazkunderako eta garapenerako.

Hau guztia, beti bezala, gure ikasleek euren gaitasunak ahalik eta gehien garatu ditzaten eta etorkizuneko gizartearen parte izateko prestatuta egon daitezen ziurtatzeko.

2021a badoa, eta inork ez daki 2022ak zer ekarriko digun, baina San Antonion, beste behin ere, erronka berriei aurre egingo diegu ahalegin, inplikazio, profesionaltasun eta ilusio handiarekin. GORA SAN ANTONIO!

Durangoko Sarek giza katea egitera deitu du euskal presoan "eskubideak bermatzea" eskatzeko

Abenduaren 31n egingo dute mobilizazioa. Bestalde, zapatuan kartzeletara egitekoak diren martxetan parte hartzea deitu dituzte durangarrak, eta urtarilaren 8an Bilboko Autonomia Klean egitekoa den manifestaziora joatera



Durangoko Sare plataformako hainbat kide, San Agustinen egindako agerraldian.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Sareren esanetan, herriko euskal presoek bizi duten egoera "Euskal Herriko egoeraren ispilu" da. Zortzi presoetatik bi baino ez daude Euskal Herriko kartzeletan kondena betetzen. Guillermo Merino da bat (Basauriko kartzelan dago preso), eta Iurdan Martitegi da bestea (Martuteneko kartzelan dago). Sarek gaineratu du Gorka Lupiañez ere Euskal Herriko kartzelaren batera lekualdatuko dutela, baina plataformak ez du oraingoz "zehaztasunik" jaso.

Durangoko Sareren berbetan, "herriko preso guztiek dute kondeenaren laurdena beteta, eta bigarren graduan daudenez eskubidea dute irteera baimenak eskuratzeko, baina, hala ere, orain arte pre-

so bakarrari eman diote irteera baimena". Alde horretatik, 2003ko Lege Organikoa "bertan behera" geratu beharko litzatekeela iritzi dio Sarek, "salbuespeneko legedi hau salbuespen egoera bati erantzuteko" sortu zelakoan. Gainerakoan, senideek, lagunek eta seme-alabek presoak bisitatzen egin beharreko distantziak kritikatu dituzte. Baita "baztertuta" dauden emakume presoan egoera ere. Gainera, Gregorio Vicario larriki gaixo dauden euskal presoan zerrendan dago. Orain dela gutxi ebakuntza egin diote Leongo ospitalean.

Hori guztia dela eta, Sarek mobilizazioetara deitu du presoan eskubideak bermatzea eskatzeko. Abenduaren 31n giza katea egingo dute Durangon. Bestalde, abenduaren 18an kartzeletara egitekoak diren martxetara joatera deitu dituzte durangarrak (tren geltokitik irtengo dute zapatuan, 10:30ean Basauriko kartzelara joateko), eta urtarilaren 8an Bilbon egitekoa den manifestaziora joatera.

Dendak Baik aipamen berezia jaso du Barne Merkataritzako Sarietan

Merkatari elkartearen berbetan, aipamena "egun egiten den lanaren eta ahaleginaren aintzatespena da"



Dendak Baiko ordezkariak saria jasotzen.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Dendak Bai merkatarien elkarteak aipamen berezia jaso du Espainiako Barne Merkataritzako Sari Nazionaletan. Merkataritza gune irekien kategorian jaso du aipamena, eta, elkarteko kideen berbetan, aipamena "oso garrantzitsua" da, "ibilbide luze baten emaitza" delako. Alex Palacios elkarteko presidentek eta Miren Garrastazu merkataritza teknikariak Madrilen egindako sari banaketan parte hartu zuten. Ekitaldian Reyes Maroto Industria, Merkataritza eta Turismo ministroa eta Xiana Méndez Merkataritzako Estatu idazkaria egon ziren. Han esandakoen arabera, aipamena "egun egiten den lanaren eta ahaleginaren aintzatespena da".

Dendak Bai elkartean 191 establezimendu daude. Iaz 13 establezimendu gehiago batu ziren elkartera. Aurten 15 gehiago. Elkarte orain 37 urte sortu zen.

Berbaro elkarteak neguko egonaldi bi antolatu ditu umeentzat Intxaurrondon

2011tik 2016ra bitartean jaiotakoek eman dezakete izena

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Berbaro euskara elkarteak neguko egonaldiak antolatu ditu 2011tik 2016ra bitartean jaiotako umeentzat. Elkarteak jakinarazi du egonaldi bi egingo dituela. Abenduaren

27tik 31ra bitartean egingo dute lehenengoa, eta urtarilaren 3tik 5era bitartean bigarrena.

Berbaro.eus web orrira joanda eman daiteke izena, Negan Olgetan izeneko atalean sartuta.



Intxaurrondo.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko abenduaren 17a
20. urtea - 875. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Bizikleta elektriko bat lortzeko aukera, Durangaldeko produktuak erosiz gero artean

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO
Elikatu Durangaldea sareak kanpaina berria aurkeztu du eskualdean ekoitzitako produktuak sustatzeko eta ezagutarazteko. Sarearen parte diren produktuak erosita, bezeroek bizikleta elektriko baten zozketan parte hartuko dute. Kanpaina martxan dago, abenduaren 23ra bitartean. Egitasmoaren bultzatzaileek Zornotzan egindako agerraldian adierazi dutenez, kanpaina ez da zozketara bakarrik mugatuko. Beste ekintza batzuk ere egiten dabilta. Spot bat egin dute, eta aurrerantzean bizikleta elektriko bategaz ibiliko dira mezua eskualdean zehar zabaltzen. Urkiola Landa Garapeneko teknikari Ibon Goitiak adierazi duenez, kanpaina "herritarren, ekoizleen eta baserritarren arteko informazioa zabaltzeko bide bat" izango da.

Horrez gainera, herritar guztien eskura ipini ditu sare sozialetako helbideak. Hauetxek dira: Twitter: @DElikadura; Instagram eta Facebook: Durangaldea Elikadura. Landa Garapeneko presidente Orlan Isoirdek esan du proiektuaren helburuak "eskualdeko ekoizleen eta dendarien ekonomia suspertzea" eta "bertako ekonomian zuzenean eragitea" direla.



Egitasmoaren aurkezpena joan zen astean egin zuten Zornotzan.

Establezimenduetan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina hasi dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA
Eusko Jaurlaritzak *Betikoa*, gertukoa. *Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz* izeneko kanpaina hasi du eta Zornotzako Udala bertara batu da. Kanpainaren helburua bikoitza da. Erosleak aktibatu gura dituzte erosketa egin bitartean euskara erabili dezaten. Eta alderantziz. Dendariak zein tabernariak erosleekin euskaraz egitera gonbidatu gura dituzte. Bingen Zupiria Hizkuntza Politikarako sailburuaren berbetan, "euskara eguneroko erosketekin, hurbiltasunagaz eta herriko hartu-emanekin lotzen da". Alde horretatik, euskara "konfiantza sortzeko bide lez erabiltzea" proposatzen du kanpainak.

Zornotzako Udalez gainera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste 59 udalerrik egin dute bat kanpainagaz. Baita EUDELeK, UEMaK, Arabako kuadrillek eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek ere.

Gontzal Mendibilek kontzertua eskainiko du zapatu honetan Elizaberrin

GARAI • EKAITZ HERRERA
Kantari zeanuriztarraren emanaldia 19:00etan hasiko da. Sarrera debalde izango da eta 60 pertsonentzako lekua egongo da gutxi gorabehera. Edozelan ere, udaletxera deitu beharko da kontzerturako eserlekua erreserbatzeko. Bestalde, domekan ekoizleen azoka egingo dute herriko plazan.

Turroia eta egutegiak
Garaiko udal iturriek adierazi dute datozen egunetan egutegiak eta turroia banatuko dituztela herriko etxe guztietan. Batzuek turroi gogorra jasoko dute, eta biguna besteek. Tokatzen dena. Udaleko behargin bi arduratuko dira horretaz. Garain aspaldikoa da herritarren artean turroia eta egutegiak banatzeko ohitura. Orain arte, Olentzerok eta Mari Domingik egin izan dute lan hori, baina iaz hasitako pandemia dela-eta, udal langileek hartu dute banaketa ardura.

EGUBERRI HONETARAKO OPARIRIK ONENA

Gure desiorik
onenak!

PODEMOS
AHAL DUGU
Durangaldea

ETXEBIZITZA

ENPLEGUA

EKOLOGIA

ESKUBIDEAK

OSASUNA

BERDINTASUNA

ENERGIA

HEZKUNTZA

Kultur etxean aerotermia bidezko berokuntza sistema ipintzea da Mañariko aurrekontuetako inbertsio bat

Joan zen asteko udalbatzarrean, EH Bilduk eta EAJk aho batez atera zituzten aurrera 2022ra begirako aurrekontuak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteko egunean, 2022ra begirako aurrekontuak onartu zituzten Mañarian. Aho batez atera zituzten aurrera, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin. Datorren urteko aurrekontuak 934.734 eurotan parekatu dituzte.

Inbertsioen atalean, 30.000 euroko diru atala gorde dute basogintzarako. Izan ere, aurten epe luzerako hitzarmen bat sinatu dute Lurguia fundazioagaz, udalak erositako baso bat bertako baso autoktono lez berreskuratzeko. Aurten, 30.000 eurogaz lagunduko dute proiektua.

30.000 eurogaz, baso autoktonoa berreskuratzeko proiektua babestuko dute

Beste 20.000 eurogaz aurrekontu parte hartzaileak egingo dituzte. Urtean zehar prozesu bati

ekingo diote herritarrekin, Mañarian zer lehentasun ikusten dituzten jakiteko. Inbertsioetako beste diru atal bat auzoetako bideak konpontzeko gorde dute; 25.000 euro, hain zuzen. Beste 20.000

eurogaz kultur etxeko berokuntza sistema aldatuko dute; propanoa aerotermia bidezko sistema eraginkorragoa izango da. Horrez gainera, beste 10.000 eurogaz Kirikiño kaleko autoen abiadura

gutxitzeko neurriak hartu gura dituzte. Aldundiagaz hartu-emanetan dabilta gai hori lantzeko.

2022ko ordenantza fiskalak ere onartu dituzte eta tasak eta zergak izoztea erabaki dute.



Lehenago udaletxeko eraikinean eta haurreskolakoan egin zuten moduan, aerotermia sistema ipiniko dute kultur etxean.

Otxandioko haurreskolaren ondoko eraikinean eguzki plakak ipintzen hasi dira

Otxandioko Udalak diru laguntza eskatu zuen Jaurilaritzan proiektu honetarako, eta oso-osorik eman diete

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Eskolako gimnasioko teilatuan eguzki plakak jartzeko lanak hasi dituzte Otxandion. Eraikin hau, haurreskolako eraikinaren ondo-ondoan dago, eraikin hari itsatsita. Eraikin horretan erabiliko da eguzki plakekin sortutako energia. Horrela energia berriztagarrietara erabat moldatuta gertatuko da

eraikina, gaur egun geotermia bidezko sistema erabiltzen duelako berokuntza moduan.

Lanak urtea amaituko orduko bukatzea da asmoa. Otxandioko Udalak Eusko Jaurilaritzan diru laguntza eskatu zuen proiektu honetarako eta ehuneko ehuna eman diete. Beraz, Jaurilaritzak finantzatutako proiektua izango da.



Otxandion jarri dituzten eguzki plakak.

2022ra begirako ordenantza fiskalik gehienak izoztu egin dituzte Mallabian

MALLABIA • J.D.

Datorren urtera begirako ordenantza fiskalak onartu dituzte Mallabiko Udalean. Orokorrean, tasak eta zergak izoztea erabaki dute. Salbuespen bi dau-

Aktibitate ekonomikoen gaineko zergan 0,2ko igoera egongo da; 1,7tik 1,9ra, hain zuzen ere

de. Alde batetik, aktibitate ekonomikoen zerga 0,2 igoko dute; 1,7an zegoen eta 2022an 1,9an egongo da. Horregaz batera, industria jarduerari eragiten dien Ondasun Higiezinaren gaineko zerga 0,50etik 0,53ra igoko dute.

Santo Tomas inguruko zubian salbu, euriteek kalterik ez izurtzan

IZURTZA • J.D.

Azken aste bietako euriteek ez dute aparteko kalterik eragin Izurtzan. San Tomas parke atzeko bidegorrian dagoen zubipeko errekaetoak gainezka egin du egun batzuetan, eta

Bidegorrian dagoen zubipeko errekaetoak gainezka egin du egun batzuetan

ingurua lurrez zikindu du. Errekaetoak Mañaria erreka-gaz bat egiten du handik metro gutxira. Hori salbu, euriteek ez dute auzoetan bestelako kalterik eragin, udal ordezkariak adierazi dutenez.

Prokto
klinika
Uzki eta zoru pelbikoko patologia



Hemorroideak (Almorranak)

Uzkiko azkura



Uzkiko fistula


Jarri harremanetan gurekin

☎ 674 322 360 / 94 605 53 04

✉ info@proktoklinika.eus
proktoklinika.eus

📍 Mikeldi 13, 48200 - Durango

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO**
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.



keinu

- Optometrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoportometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO

Podologia
klinikak

Goitz Murua
kol. zbk. 147

Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238

Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínicadentalhortzklínika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO**
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09



AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Haurreskolan eta ludotekan lanak egitea eta eskolan sukaldia ipintzea, Atxondoko proiektu nagusiak

Astelehenean 2022ko udal aurrekontuak onartu zituzten Atxondoko Udalean. Datorren urtean 2.309.996 euroko aurrekontua izango dute, iazkoa baino zerbait txikiagoa



Atxondoko Udalak 2022ko aurrekontuak onartu ditu.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehen goizean egindako osoko bilkuran, Atxondoko Udalak 2022rako aurrekontuak onartu zituen. EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz 2.309.996 euroko aurrekontua onartu zuten. "Datorren urteko aurrekontua 2021ekoa baino baxuagoa da, baina 2021eko aurrekontuari Bizkaiko Foru Aldundiak BI-3336 errepidea zeharbide bihurtzeko emandako 700.000 euroak kentzen badizkiogu, 2022ko aurrekontua aurtengoa baino handiagoa da", azaldu dute gobernu taldekoek prentsa ohar baten bitartez.

Datorren urteko inbertsioetan, haurreskolako eta ludotekako lanak egiteko proiektuak izango dira garrantzitsuenak. Horretarako, 110.000 euro ipiniko dituzte. Bestalde, Herri Eskolan sukaldia ipintzea 2022ko beste proiektu nagusi bat izango da. "Eusko Jaur-

laritzak eta Atxondoko Udalak emandakoaren artean, 440.000 euro inguru inbertituko ditugu eskolako ingurunea hobetzeko, eta

Jarduera fisikoa sustatzeko espazio berriak sortuko ditu Atxondoko Udalak

EH Bilduren hainbat proposamen ere jaso dutela jakinarazi dute gobernu taldekoek

65.000 euroko partida bat erreserbatu dugu Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazten jarraitzeko. Horrez gainera, Jubilatuen Etxea berriro ere birgaituko da taberna

martxan ipintzeko", aurreratu dute jeltzaleek.

Jarduera fisikoa sustatzeko espazio berriak sortzen jarraitzea ere helburu izango du Atxondoko Udalak. Horretarako, liburutegiaren inguruan eta pump track-aren ondoan adineko pertsonentzako parke biosasungarri bat ipintzea aurreikusten dute, besteak beste.

Bestalde, gobernu taldeko ki-deek prentsa ohar baten bitartez jakinarazi dute EH Bilduren hainbat proposamen ere kontuan hartu dutela 2022ko aurrekontuetarako: Arrazolako frontoia eta Topeko merenderoa konpontzea, besteak beste.

"Aurrekontuek berriro erdigunean ipintzen dute atxondarren ongizatea, eta, horregaitik, udalak Atxondoren suspertze ekonomikoaren buru izaten eta herritarren kargak aritzen jarraituko du", amaitu dute udal arduradunek.

Elorrioko DBHko ikasleek Jon Maia bertsolariaren bisita jaso dute asteon

Bere bizitza pertsonalari buruzko kontuak partekatzeaz gainera, Maiak bertsolaritza gerturatu die ikasleei

ELORRIO • EKAITZ HERRERA

Elorrioko institutuko ikasleek ezohiko bisita izan dute asteon. Jon Maia bertsolari zumaiarra DBHko ikasleekin batu zen martitzen goizean. Topaketak ordubete inguru iraun zuen eta Maiak bere bizitzari buruzko gorabeherak partekatu zituen

ikasleekin. Berriak jaio ginen liburua aintzat hartuta, erdaldun izatetik euskaldun izaterako bidea partekatu zuen. Bestalde, ikasleek Maiak idatzitako kantubat prestatu zuten. Benito Lertxundiren *Itsasoari begira*. Ber-baldiaren amaieran elkarregaz kantatu zuten abestia.



Jon Maia, eskuman, institutuko ikasleekin.

Berrizko Udalak diru laguntzak emango ditu haurreskolarako

Helburua lan bizitza eta familia bateragarri egiten laguntzea da; urtea amaitu baino lehenago eskatu beharko dira

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak diru laguntzak emango dizkie haurreskolaren umeak dituzten familiei.

Udaletik jakinarazi dutenez, haurreskolako diru laguntzen helburua lan-bizitza eta familia bateragarri egiten laguntzea da. Izan ere, laguntza hau Berrizko haurreskolaren umeak dituzten familientzat izango da bakarrik.

Haurreskolako diru laguntza eskaera hau egiteko epea abenduaren 1ean hasi zen eta abenduaren 30ean amaitzen da. Diru laguntzarako interesa dutenek Berrizko udaletxean egin beharko dute eskaria.

Diru laguntza urtea amaitu baino lehenago eskatu behar da eta ekainetik abendura bitartean egindako matrikulazioei eragingo die.



DURANGO
Udalak • Ayuntamiento



www.gualbiasesores.com

**Bezeraoa, bere enpresako
kudeaketa eta bere
gogobetetzea dira
gure helburu nagusia**



- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com



Astelehenean elkarretaratzea egin zuten Zaldibarren.

Alga eta Inervol enpresetako langileek greba mugagabeari ekin diote

Abenduaren 9an hasi zuten protesta, 22:00etan; enpresa biak Alga taldekoak dira

ZALDIBAR/ABADIÑO • A.M.

Alga eta Inervol enpresetako langileek "pazientzia agortu" zaiela azaldu dute. Hori dela eta, abenduaren 9an greba mugagabeari ekin zioten, 22:00etan. Horrez gainera, protesta ekimenak ere antolatu dituzte. Astelehenean elkarretaratzea egin zuten Zaldibarko udaletxe parean; martitzenean ere protesta egin zuten; kasu honetan, Abadiñoko udaletxearen parean. Protesten amaieran egindako irakurketetan, epe laburrerako zein luzerako irtenbideak eskatu zituzten "egoera larria" amaitzeko.

Langileen esanetan, hile bi daramatzate nominarik jaso barik, eta uste dute abenduan egoera larritu egingo dela urtarrileko nominari eta abenduko aparteko ordain-sariari dagokienez. "Dakizuen moduan, Alga talde industrialak 24 hilabete daramatza egoera ekonomiko-finantzario larrian, baina, paradoxikoki, lan karga altua dugu. 24 hilabete hauetan 180 familia gabiltza egoera hau sufritzen, eta izan ditugun zuzendaritzen kudeaketa negargarriaren ondorioz, ez digute ordaindu eta ziurgabetasun egoerak bizi

izan ditugu. Enpresak nomina bi zor dizkigu eta orain, gainera, abenduko aparteko ordainsaria eta urtarrileko nomina ordaindu behar dizkigute. Orain denbora asko, enpresari esan genion amaitu dela doan lan egitea", adierazi dute. Epe luzera begirako asmoak zeintzuk diren "argitzeko" ere eskatu dute.

Inervolek Zaldibarren du lan-tegia, eta Algak Abadiñon eta Zaldibarren. Enpresek 180 langile dituzte, eta LABek, ELAk, CCOOK eta independenteek osatzen dute ordezkari-tza sindikala.

Gabonetako kanpaina, tokiko erosketak sustatzeko

Abadiñoko 18 establezimenduk bat egin dute Gabonetako kanpainagaz. Urtarrilaren 24an egingo dute zozketa.

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko asmoagaz, udalak eta Abadiñoko Merkataritza Elkarteak Gabonetako kanpaina martxan ipini dute; hamazortzi establezimendu batu dira ekimenera. Bost euroko edo gehiagoko erosketak egiten dutenek urtarrilaren 24an egingo den zozketan parte hartu ahaliko dute. 2.500 euroko txartela zozkatuko da egun horretan; txartel hori bidaia batengaitik, Samsung telebista

batengaitik edo Iphone 13 mugikor batengaitik trukatu ahaliko da. Horrez gainera, establezimenduen bakoitzak 5 eta 10 euroko deskontu kupoi propioak zozkatuko ditu. "Sektoreak hile zailak bizi izan ditu eta jendea herrian kontsumitzera animatu gura dugu, ez dezagun ahaztu ezinbesteko sektorea dela gure auzoak eta herriak bizirik egoteko", azaldu du Iñaki Rekalde Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Enplegu zinegotziak.



Traña-Matienako Txinurrisolo kalea.

Iturriagaetxebarriaren behiak diploma jaso du Leioako azokan

Seigarren urtez jarraian, Jacinto Iturriagaetxebarriaren behi batek irabazi du Leioako Azokako garaikurra. Aurten, abelburuak pisatu beharrean, epaimahaiak eman ditu sariak

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Abadiñoko Gaztelubeitia baserrian badakite behiak zelan zaindu. Izan ere, Jacinto Iturriagaetxebarriaren 'Neska' behiak diploma jaso zuen joan zen asteburuan Leioako azokan. "1.300 kilo inguru ditu. Hala ere, aurtengo egoeragaz, behiak pisatu beharrean, epaimahaiak eman ditu sariak", azaldu du abadiñarrak. "Banuen esperantza, lehiaketara sei abelburu eraman ditugu eta. Poz handia izan da, sei urtean sei txapel eskuratu ditudalako", azaldu du abeltzainak. Orain urte bi, Jacintoren 'Handi' behia munduko behirik handiena lez ezagun egin zen, 1.494 kilogramoz.



Erdian, Jacinto Iturriagaetxebarria eta 'Neska' behia.

Durangaldeko Behargintza ZERBITZUAK:



PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA

Lana bilatzeko
orientazioa eta
laguntza

ENPRESA BERRIAK SORTZEA / AUTOENPLEGUA

Aholkularitza
eta
formazioa

ENPRESAK

Enpresei laguntza
eta aholkularitza

946 232 522

Landako Elkartegia (Durango)

**Durangaldeko
Behargintza**
Euzko Lehen Agencia
Agencia Durangala de Desarrollo

**Durangaldeko
Mankomunitatea**
Mancomunidad
de Durangaldea

Iurretan garbitasun zerbitzua indartuko dute kultur etxean eta herri eskolan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak Ibarretxe kultur etxean eta Maiztegi eskolan garbiketa zerbitzua indartzea erabaki du. Urtarritik ekainera bitartean, garbiketa eta desinfekzio lanak sakonduko dituzte "segurta-

Garbitasun zerbitzuaren errefortzurako, 9.000 euro gehiago erabiliko ditu Iurretako Udalak

sun eta osasun neurriak bermatzeko", udal arduradunek azaldu dutenez. Zerbitzuaren errefortzu horretarako, udalak 9.000 euro gehiago ipiniko ditu: Ibarretxe kultur etxea garbitzeko, 3.000 euro gehiago erabiliko dituzte, eta Maiztegi eskola garbitzeko, 6.000 euro gehituko dituzte.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Mankomunitateko gobernu taldeak (EAJ eta Abadiñoako Independentienteak) eta oposizioko talde nagusiak (EH Bildu) akordioa lortu dute 2022ko aurrekontuak onartzeko. Aurrekontua 7.926.266 eurokoa izango da, iazkoa baino %6 handiagoa, eta kopuru horren %70 gizarte politiketarako eta enplegua sustatzeko erabiliko dute. Martxan ipintzea aurreikusi duten neurrien artean, gizarte larrialdiei erantzuteko etxebizitza bat atontzea dago. Bestetik, etxerik etxeko laguntza zerbitzua arautuko duen erreglamendu berri bat onartzea adostu dute. Hondakin organikoaren bilketari dagokionez, "berariazko kanpaina bat" diseinatuko dute "edukiontzi marroia Durangaldeko etxe guztietara ailegatu dadin". Eta klima aldaketari dagokionez, bizikletaren eguneroko erabilera sustatzea eta eskualdeko ingurumen-diagnostikoa egitea aurreikusi dute. Herriaren Eskubidea akordio horretatik kanpora geratu da. Mankomunitateko iturrien berbetan, alderdi moreak ez ditu aurrekontuak babestuko.

EH Bilduren ikuspegia

EH Bilduk akordioari buruzko bere interpretazioa azaldu zuen prentsurrekoan. Bere esane-

Mankomunitateko alderdien gehiengoak akordioa lortu du aurrekontuak onartzeko

EAJk, EH Bilduk eta Abadiñoako Independentienteek lortu dute akordioa. Herriaren Eskubidea ez da bat etorri

Urgentzia egoeran dauden herritarrentzako etxebizitza bat atontzea adostu dute

tan, "hiru esparrutan" egin ditu proposamenak aurrekontuak "hobetzeko": gizarte zerbitzuak indartzean, hondakin organikoaren bilketan eta udalek Mankomunitateari egiten dioten

finantzaketan. Ainara Otxotore-naren berbetan, organikoaren bilketa kopurua "etenda" dago, nahiz eta 2021eko martxotik hondakin organiko guztia bota daitekeen edukiontzi marroira. Horregaitik, 40.000 euroko diru partida sortzea adostu dute, organikoaren bilketa bultzatzeko. Bestalde, udalek Mankomunitateari egiten dioten kuota-ekarpina soberakina baliatuta finantzatzea adostu dute. Mankomunitatean 5.259.397 euroko soberakina dagoela azaldu du EH Bilduk.



Durangoko Elkartegia da Mankomunitatearen gaur egungo egoitza.

betiON GARA



betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:
www.euskadi.eus/betion
900 851 600
012 Zuzenean


Euskadi, auzolana



Xabier Lapitz: Kazetaria
Itziar Aizpuru: Aktorea

Eguaztenetik aurrera, COVID ziurtagiria derrigorrezkoa eremu itxi gehiagotan

Euskadiko Auzitegi Nagusiak argi berdea eman dio ziurtagiria eremu gehiagotan ezartzeari



Eguaztenetik COVID ziurtagiria derrigorrezkoa da hainbat eremutan.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Euskadiko Auzitegi Nagusiak argi berdea eman dio COVID ziurtagiria eremu itxi gehiagotara zabalteko aukerari, eta Osasun Sailak eguaztenean bertan sartu zuen neurria indarrean. Beraz, eguaztenetik aurrera COVID ziurtagiria beharrezkoa da ostalaritzako esparru guztietara, ospitaleetara, gimnasioetara, kiroldegietara, egoitzetara, musika jaialdietara edo kultur ekitaldietara sartzeko. Era berean, neurriak segida izango

du, orain arteko moduan, ostalaritza arloan. Oraingoz, neurri berriak kanpora geratuko dira futbol estadioak.

Ziurtagiria beharrezkoa da kiroldegietara eta musika jaialdietara sartzeko, besteak beste

Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren berbetan, neurria "ona" da "topaketak egin ohi diren eta kutsatzeak areagotzen diren tokitan segurtasuna indartzeko". Bestalde, ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeei egoera aztertzeak eskatu die Sagardui, eta ekintza zehatz bat egiteak ekarri dezakeen arriskua baloratzeko.

Politikan

Neskutz
Rodríguez
Herriaren Eskubidea



Eta kudeatzaile onenaren saria...

Badirudi, azken aldi honetan, "posiblearen kudeaketaz" arduratzea dela politika instituzionalaren helburu bakarra. Pribilegiatu gutxi batzuk eta batzuentzat egindako enpresa/sistema horren kudeatzaile onena nor den probatu nahi balitz bezala.

Badirudi gaur egungo politikaren xedea epe motzeko helburuak lortzea dela, gizarte-lorpen handi gisa salduko erreforma txikiak bilatuz, erroko arazoetan sakondu nahi izan gabe. Baina askotan eta tamalez, "guztiontzako kafea" deritzon neurri horiek gero eta gehiago areagotzen dituzte desberdintasunak, prekaritatea, zerbitzu publikoen pribatizazioak eta krisi klimatikoa.

Badirudi gaur egungo politikaren xedea epe motzeko helburuak lortzea dela

Badakit asko direla kanpotik etorritako presioak, batez ere ekonomikoak. Badakit ere oso zaila egiten dela presio hauei aurre egitea politika ausartak eta garrantzi sozial handiagokoak bultzatzeko epe ertain eta luzera, eta, batez ere, alderdi instituzionalek soilik egin nahi bada.

Baina Euskal Herria aktibismo sozial eta sindikala ezaugarritzat izan duen herria da eta oraindik izan behar du. Eta hau ez dator soilik epe laburreko lorpen txikiak eginez alor insituzionalen, posiblearen kudeaketan geratuz. Horrek sistemaren konplize egiten gaituelako.

Durungaldea asteen

Berrizko 77 familiak parte hartu dute euskararen kriseiluaren kanpainan

Berriz I Haur Hezkuntzako 5. mailatik Lehen Hezkuntzako lehenengo mailara bitarteko umeek parte hartu dute. Guztira, 77 familiak. Kanpainak iraun duen bitartean, euskararen kriseilua piztuta izan dute etxeetan. Egitasmoa abenduaren 14an amaitu zen, eta beste behin ere euskararekiko ilusioa, jarrera positiboak eta atxikimendua transmititzeko aukera eskaini du.

Hasi dituzte lanak Dudagoitia auzoko etxeak ur-sare orokorrera batzeko

Zornotza I Zornotzako Udalak dagoeneko hasi ditu lanak Dudagoitia auzoko etxeak ur edangarriz hornitzeko. Orain arte, Aietza erreka ura hartuta eta araztuta hornitu dute auzoa. Baina, aurrerantzean, Zornotzako sare publikora batuko dituzte etxeak. Presio talde berri bat instalatuko dute, batez ere. Lanek lau hilabete iraungo dute. Udalak 200.000 euro ipini ditu lanotarako.

Durango EAJk osoko zuzenketa aurkeztu die 2022ko udal aurrekontuei

Durango I Jeltzaleen berbetan, gobernu taldearen "konpromiso, seriotasun eta gardentasun faltak bideraezina egiten du akordio berri bat". Erabaki hori hartzeko arrazoiaren artean, Ondasunen eta Higiezinaren Zergaren "neurribako igoera" eta merkataritza, turismoa eta mugikortasun jasagarria bultzatzeko neurrien "gauzatze maila eskasa" nabarmendu dituzte.



Julen Baz sukaldari zornotzarrak bere lehenengo Michelin izarra irabazi du

Zornotza I Michelin gidak 2022ko jatetxerik prestigiotsuenen zerrenda berritu du asteen, eta Durangaldeko izen berri bat batu da jatetxe zerrendara: Julen Baz. Sukaldari zornotzarrak Dimako Garena jatetxea kudeatzen du eta Michelin izar bat irabazi du, bere ibilbideko lehenengoa.

Gainerakoan, Eneko Atxa zornotzarraren Azurmendi jatetxeak bere hiru Michelin izarrei eutsi die. Axpeko Etxebarri jatetxeak eta Zornotzako Boroak ere, beste horrenbeste. Izar bana izan dute orain arte eta kategoria horri eutsiko diote aurrerantzean ere.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Estetika gida
anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO
Ile-apaindegia

Ile-apaindegia
IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491



Gabonak 2021

Gehigarria

Zurekin
dena
berri on.



EROSKIn milioika gauza egiten ditugu, elkarrekin denbora gehiago igarotzea errazagoa izan dadin.

 **EROSKI**
zurekin

Gabon jaiak 2020

ABADIÑO
Abenduak 19, domeka
10:00-14:00 ‘Durangaldeko eskola mailako xake txapelketa. Traña-Matienako frontoian. 17:00 ‘Kotondarrak’, Anita Maravillas. Errotan
Abenduak 22, eguaztena
17:00 Maite Franko ipuin kontalaria (4-5 urte / 17:30ean)
Abenduak 24, barikua
11:30 Gabonetako lasterketa Muntsaratzetik. (0-8 urte / 11:45ean 9-12 urte / 12:00etan 13-100 urte). 11:30-15:00 Olentzeroren postontzia. Traña plazan 16:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira. Traña-Matiena- Muntsaratz-Txanporta.
Abenduak 28, 29 eta 30, martitzena, eguaztena eta eguena
11:30-13:30 / 16:00-20:00 0-9 urte, umeen gabonetako jolaslekua. Probalekuan. 11:30-13:30 / 16:00-20:00 10 urtetik aurrera, umeen gabonetako jolaslekua. Traña-Matienako frontoian.
Abenduak 28, eguena
19:30 Gabonetako kontzertua Javier Artigas eta Benantzi Bilbao organistekin. San Trokaz elizan.
Urtarrilak 2, domeka
19:00 ‘Goiko gela’ XVI. Gospel zikloa. Errota kultur etxean.
Urtarrilak 3, astelehena
17:00 ‘Ezinezkoaren logika’ Hodei magoagaz. Errotan.
Urtarrilak 4, martitzena
19:00e ‘Dos pájaros y medio’ antzerkia. Errota kultur etxean.
Urtarrilak 5, eguaztena
18:00etan Erregeen kabalkada, Muntsaratz-Zelaieta-Traña-Matiena.
ATXONDO
Abenduak 29, eguaztena
17:30 ‘Gabonetako ipuinak’, Leire Apika. Atxondoko liburutegia. (17:30ean 3-5 urte artekoentzat / 18:00 6 urtetik gorakoentzat).
ELORRIO
Abenduak 19, domeka
17:00 ‘Houdiniren magia’, Sun Magoa. Arriola Antzokia.
Abenduak 24, barikua
18:00 Badatoz Olentzero eta Mari Domingi!, Besaide Dantza Taldeagaz. Erdigunea.
Abenduak 26, domeka
17:30 ‘Neguko zirkua’, zirku familiarra. Hilario Azkarate frontoia.
Abenduak 31, barikua
9:00 Erdellakoekin mendira. Atxaurrutxagane eta Gongeta.
Urtarrila 1, zapatua
9:00 Guztiok Erdellara!
Abenduak 5, eguaztena
17:30 Errege Magoen gaia. Elizpea.
*'Argazki erakusketa kolektiboa'. Elorrioko Argazki Taldea. Iturri kultur etxean abendu osoan zehar.
HAUR PARKEA (11:00-14:00/17:00-19:30): abenduaren 27, 28 eta 29an/urtarrilaren 2, 3 eta 4an. H. Azkarate frontoian.

DURANGO
Abenduak 15, eguaztena
18:00 eta 19:00 ‘Mari Puri Herrerogaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak’ (Erakusketa eta bisita gidatuak euskaraz) Durangoko Arte eta Historia Museoa
Abenduak 16, eguena
18:00 eta 19:00 ‘Mari Puri Herrerogaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak’ (Erakusketa eta bisita gidatuak euskaraz) Durangoko Arte eta Historia Museoa
Abenduak 17, barikua
18:30 Bartolome Ertzilla Musika Eskolako kideen kontzertua. Landako Gunean.
Abenduaren 17tik 21era bitartean
11:00-14:30 / 16:30-20:00. Eixu Artisau Elkartearen azoka. Landako Gunea.
Abenduak 18, zapatua
17:00 Txokolatada (Madalenan, Auzo Alai) 17:30 Kriskitin Dantza Taldea. Bidelagun eta beste batzuk (Madalenan, Auzo Alai elkarteak antolatuta) 18:00 Allegro Momentos adinekoentzat Landako Gunean 19:00 Feten-Feten (Musika hamabostaldia) San Agustinen 20:00 Otzara handi baten zozketa (Madalenan, Auzo Alai) 20:00 Bogoroditsie abesbatza San Frantzisko elizan 21:00 Urte bukaerako kanpaiak / DJ (Madalenan, Auzo Alai)
Abenduak 19, domeka
13:00 Durangoko Musika Bandaren kontzertua. Landako Gunea 18:00 ‘Tarzan’ familia antzerkia San Agustin Kultur Gunea (4 euro. 3 txikitxartelagaz) 19:00 Durangoko Orfeoiairen gabonetako kontzertua. Begi Argiak Abesbatza, Bogoroditsie Abesbatza eta Durangoko Orfeoia Santa Ana Eliza
Abenduak 22, eguaztena
19:00 L'Atelier Dantza Eskolaren ikuskizuna. San Agustinen. 19:00 Sugarri fanfarrea, Gabonetako doinuak.
Abenduak 24, barikua
19:00 Olentzero eta Mari Domingi. Institutua, F.J. de Zumarraga, Ermodo, Zumalakarregi, Ezkurdiko kioskoa. (Euria izanez gero, Landako Gunean).
Abenduak 26, domeka
12:30 Jaizale Txistulari Elkartearen Gabonetako kontzertua. San Frantzisko elizan. 16:00 eta 19:00 I Pirritx, Porrotx eta Marimotots. ‘Kuikui’ ikuskizuna. Landako Gunea (5 euro) 19:30 Organo eta soprano kontzertua Gerardo Rifón eta Lucía Gomezegaz. Arandoño kultur elkarteak antolatuta. San Frantzisko elizan.
Abenduaren 27tik 30era
12:00 Jolas Eguna Tabira parkean. Euria bada, Landako Gunean 19:00 Maluta. Gabonetako zirku galak. San Agustin kultur gunean. (7 euro helduek, 4 umeek)
Abenduaren 28, martitzena
11:30-13:30 /16:00-20:00 Txu Txu Trena, Dendak Bai elkartearen eskutik. Madalenako autobus geltokian 12 :00 Jolas Eguna Muruetatorren. Euria bada: Landako Gunean
Abenduak 29, eguaztena
11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu Txu Trena, Dendak Bai elkartearen eskutik. Madalenako autobus geltokian 12:00 Jolas Eguna San Fauston. Euria bada: Frontoian 18:00 Kalejira. Dendak Bai. Landako Gunean hasita
Abenduak 30, eguena
11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu Txu Trena, Dendak Bai elkartearen eskutik. Madalenako autobus geltokian 19:00 Granujas a todo ritmo kale animazioa, Dendak Bai elkartearen eskutik. Askatasun Etorbidean hasita 20:00 Joseba Irazoki eta lagunak. Landako Gunean.

Urtarrilak 2, domeka
19:00 Doinuzahar. Gabonetako kontzertua. San Frantzisko eliza
Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an
16:00-20:00 PIN - Umeen Gabonetako Parkea. Landako Gunea. (Helduak euro bat, umeak debalde)
Urtarrilak 5, eguaztena
Errege Magoen Kabalkada. 18:45 Fray Juan de Zumarraga, 19:15 Ezkurdí. 19:35 udal plaza. 20:15 Andra Maria
Urtarrilak 6, eguena
18:00 JAED elkartearen ongintzazko zozketa. Andra Marian.
Urtarrilak 7, barikua
20:00 Ruper Ordorikaren kontzertua Landako Gunean.
Urtarrilak 8, zapatua
22:00 Insömnia taldearen kontzertua Landako Gunean.
ERAKUSKETAK Abenduaren 3tik otsailaren 20ra. 'Mari Puri Herrerogaz berbetan'. Arte eta Historia Museoa. Abenduaren 6tik 19ra, Gazteen lan artistikoen lehiaketaren erakusketa. Ezkurdiko Udal Aretoan. Astelehenetik barikura 18:00–20:00 bitartean. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 12:00–14:00 / 18:00–20:00

Jaiotza eta erakusketen ibilbidea Durangoko hainbat komertziotan.

IURRETA
Abenduaren 17ra arte
Iurretako Gutun-postal lehiaketa, 13 urtetik beherako umeentzat
Urtarrilak 3an, 4an eta 5ean
Eskulan eta serigrafia tailerrak, 10:00etatik 11:30era, LHko 1. mailatik 4. mailara arteko neska-mutilentzat. LHko 5. mailatik DBK-ko 2. mailara arteko gaztetxoentzat, 12:00etatik 13:30era.
MAÑARIA
Abenduak 24, barikua
17:30 Olentzerori eta Mari Domingiri etorrera. Plazan
Abenduak 27, 28 eta 29
10:00-13:00 Umeentzako tailerrak. Liburutegi zaharrean
Abenduak 30, eguena
09:30 Autobusez Mendiola auzoko Alluitz Natura-ra egunpasa. Plazan. (Andra Mari Aisialdi eta Kultur elkarteak)

OTXANDIO
Abenduak 16, eguena
11:00-19:00 Motokros motor klasikoen erakustaldia. Maiñondoko kirolgunean. 19:00 ‘Ez dok ero’ antzezlan. Eskolako gimnasioan. 19:00 Otxandioko musika bandaren kontzertua. Santa Marina elizan
Abenduak 26, domeka
Arratsaldean; Oihan Vegaren kontzertua. Mainondoko pilotalekua.
ZORNOTZA
Abenduak 17, barikua
20:00 ‘Gabonetako kontzertua’, Zubiaur Musika Eskola. Zornotza Aretoa.
Abenduak 18, zapatua
20:00 ‘Bidaia hemen eta orain’, Zornotzako Musika Banda. Zornotza Aretoa. 20:00 Gauero kantari 2021. Zelaietako kontzertu gela.
Abenduak 19, domeka

GAZTA TARTA LABAN

OSAGARRIAK:

Kilo bat krema gazta
500 ml esnegain, kozinatzekoa
7-8 arrautza
240 gr azukre

ELABORAZIOA:

1. Krema gazta azukreagaz harrotu
2. Esnegaina eta arrautzak gehitu
3. Irabiatu bitsa atera arte
4. 220°-tan 36 min
5. Jalkitzen utzi giro-tenperaturan, gutxienez 4-6 ordu



Iñaki Uribe
SALTSAN-EKO ARDURADUNA

MAKALLAU SALTSAN, PIL-PILEAN ONDDOEKIN

OSAGAIK

4 LAGUNENTZAT:

- 800 gr bakailao
- 250ml oliba olio
- 3 berakatz atal
- 200 gr onddo
- Perrexila

EGITEKO MODUA:

Onddoak su txikian kozinatuko ditugu, eurak bakarrik, olioagaz eta berakatzagaz. Berakatz eta olio konfitatuko ditugu.

Berakatz prest dagoenean oliotan onddoekein, bakailao xerrak kazola batean ipiniko ditugu. Onddoak gehitu eta kazola mugitzen hasiko gara, zaporeak nahasteko. Mugimenduagaz saltsa sendotzen joango da. Apurka-apurka olio gehituko diogu, olio, onddo eta bakailaoz osatutako saltsa sendoa lortu arte. Hortxe bakailaoa pil-pilean onddoekein. Kazolatxo baten aurkeztuko dugu azala gora begira, saltsa sendoagaz eta perrexila txiki-txiki eginda.



Bizkarra
Jatetxea
URKIOLA auzoa, 4-6
Tel.: 94 681 20 26
689 80 29 37

Gabonetan janaria prestatzeko astirik ez? Guk lagunduko dizugu
Ettxera eramateko janaria, betikoa, etxekoaren modukoa

GABON GAUERA 2021eko abenduaren 22a baino lehenago	GABON ZAHARRETARAKO 2021eko abenduaren 28a baino lehenago	JUBILATU AURRETIK, AZKEN ENKARGUAK
--	---	---

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta ab.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperminak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: **688 773 205 / 688 734 329**

saltsan.com



ABENDUAK 17 TIK 21RA DURANGOKO LANDAKO GUNEAN, ARTISAU AZOKAN.

ARTISAU-LANAK

GORAKAT

www.gorakat.eus

Elorrioren tailerra: San Juan kalea 6, behea
Tel.: 653 746 994 / 607 693 606

@gora_kat

arteka
liburu-denda

artekale, 20
944 657 292
Durango

haur literatura
arteA
musika
arkitektura
opari bereziak
erakusketak






hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Eskera WhatsApp-er eskatu
686 214 964

bizum -er ordaindu





GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia




bed's

KOLTXOIAK - OHE OINARRIAK
BURKOAK - OHEKO ARROPA

Zure premiei erantzuteko prest egongo gara:
bed's koltxoi-denda
Alluitz, 1 - Durango
944 005 980



urtxintxa

jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69









Mancisidor bitxi-dendako kideak, 'Intxaur-hauskailua' ipuineko elementuak eskuetan. Erdian, Maite Mancisidor.

“Urterik urte geroago eta denbora gehiago eskaintzen diogu Gabonetako erakusleihoa apaintzeari”

Durangoko Mancisidor erloju eta bitxi-dendak 'Intxaur-hauskailua' ipuinean inspiratuta dekoratu du erakusleihoa. Mimo handiz dekoratu dute, lanari uda amaieran ekinda

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Maite Mancisidor Salaberria (Durango, 1976) abizena ematen dion bitxi-dendako arduraduna da. Tradizio handiko denda da Durangon. Mancisidor familiak 1866an zabaldu zuen. Maiterena bosgarren belaunaldia da.

Dendako erakusleihoa goitik behera apaindu duzue. Irudimena eta denbora eskaini dizkiozuela ezin ukatu. Udatik gabilta honegaz. Uda amaitzen den aldiro erakusleihoa zelan apaindu pentsatzen hasten gara: ideiak pentsatzen, objektuak begiratzen, erosten... Orain, erakusleihoa jendeari erakusteko momentua da.

Zein gai edo zein tematika baliatu duzue aurtengo erakusleihoa dekoratzeko?

Aurten, *Intxaur-hauskailua* ipuina eta balleta erabili ditugu inspirazio iturri lez. Hainbat bertsio dago. Ez gara bertsio bakar batera mugatu. Eta askotariko liburuak eta balletak daudenez, bertsio bakoitzean dauden elementuak ipintzen ahalegindu gara.

Zein elementu daude ikusgai?

Batetik, *Intxaur-hauskailua* bera dago ikusgai. Bestetik, Droselmeyer pertsonaia. Elurretako edo Azukretako maitagarria ere badago, eta baita Sagu erregea ere. Horrez gainera, sagutxoak, Klara umea eta bere neba ere badaude. Elementu asko dago.

Dendariak zaretenontzat, zein garrantzia du Gabonetako erakusleihok?

Gantxo handia dauka, itzela. Guk orain urte batzuk ekin genion Gabonetan erakusleihoa apaintzeari, eta urteak joan ahala geroago eta denbora gehiago eskaini diogu prestaketari. Jendeak asko eskertzen du. Sartzen da, zoriontzen zaitu, eskertu... bai, jendeak asko eskertzen du.

Erakusleihok dekoratzeko joera hau zer-nolakoa da Durangoko gainerako dendetan?

Iruditzen zait, gehiago ala gutxiago, dendari guztiek egiten dutela ahalegina. Eta ahalegin horri eskerrak herria askoz ere politago dago, erakusleihok argitsu daude, erakargarriago. Eta kaletik goazela denoi gustatzen zaigu horrelakoak ikustea.

Abenduaren 17tik 21era Gabonetako Artisau eta Sortzaileen Azoka, Durangon

Eixu artisau elkarteak antolatuta, bigarren urtez Artisau eta Sortzaileen Azoka egingo dute Landako Gunean



lazko azokako irudia.

AZOKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bigarren urtez, Gabonetako Artisau eta Sortzaileen Azoka egingo dute Durangon. Abenduaren 17tik 21era bitartean, Landako Gunean askotariko produktuak egongo dira ikusgai eta erosgai: arropa, bitxiak, ilustrazioak, kosmetika naturala, inprimaketa artistikoak, egur taila, dekorazioa, lanparak eta motxilak, besteak beste.

Eixuk antolatzen duen Gabonetako azoka goizean zein arratsaldean egongo da zabalik. Goizean

11:00etatik 14:30era, eta arratsaldean 16:30etik 20:00etara.

"Eguberrian egiten ditugun opariak erosteko aukera ona izan daiteke, opari eder, original eta bakarrak erosteko, bertan sorturikoak", azaldu dute antolatzaileek.

Azokako lehenengo egunetan egindako erosketen artean 50 euroko bonuak zozkatuko dituztela azaldu dute. Bonuak azokan bertan erabili beharko dira, azokak irauten duen bitartean.

Gabonetan balkoiak apaintzeko lehiaketa antolatu dute Muruetatorre auzoan

Muruetatorre auzo elkarteak antolatu du lehiaketa

LEHIAKETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR


Durangoko Muruetatorre auzoko elkarteak Gabonetan balkoiak apaintzeko lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartu gura duten auzotarrek nahikoa izango dute balkoia apaintzeagaz. Lehiaketan parte hartu gura dutenek urtarrilaren 6ra arte izan

beharko dute balkoia apainduta. Elkarrekin hiru sari banatuko dituzte. Irabazleak paseoko bizikleta bat irabaziko du. Bigarren saria On Ekin Nutrizioan plan dietetiko bat izango da, eta hirugarrena masaje bat Pablo Zubizarreta fisioterapiaren zentroan.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxe: 946 203 622
www.neumaticosetxebarria.com



afede



Gure Jostailu-Denda

+8 URTE

Ref. 2410
Euskal Jokoa

25,95€

19,99€

Ref. 17482
Hezigarria
Konektatu hezigarria euskaraz
352 lamina

+5 URTE

19,95€

Ref. 40103
Party & Co Junior

+8 URTE

29,95€

Ref. 7057
Bizen behin... bizitza
Giza gorputzari buruzko 2.200 galdera-erantzun, 5 ataletan banatuta

+6 URTE

24,90€

Ref. 9876
Hartz kontalaria
Peluxezko Hartz ipun-kontalaria:
3 Txerri txoak eta Txanogorritxo

+3 URTE

39,99€

Ref. BGVAS
Catan
Estrategia eta abilezia jokoa

+3 URTE

12,50€

Ref. 7010E
Zein da Zein?
Asmatu aurkariaren animalia-txartela

+4 URTE

12,99€

Ref. 88001
Hitzak osatu
9 lamina eta
54 irudi ditu

+5 URTE




SUDOKUA

Kokatu beheko objektuak
dagokien lauki zurietan.



LABIRINTOA



LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2022

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite
ATXONDO	Abadiñoko estankoa
BERRIZ	Kiosko Atxondo
DURANGO	Egunon okindegia
	Etxebarria prentsa denda
	Hitz Liburudenda
	Arkarazo taberna
ELORRIO	Ilargi prentsa denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	U2 taberna
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



'Konpromisoa'

ANTZERKIA **ELORRIO** :: Abenduaren 17an

Lagun biren arteko adiskidetasuna, muga guztien gainetik

Tomas eta German aspaldiko lagunak dira eta euren adiskidetasun krisia da *Konpromisoa* antzezlanaren ardatza. Tomas sasi autore bat da eta German bere lanbidean arrakasta handirik ez duen aktorea. Germanek arazo ekonomikoak ditu eta apartamentua saldu beharra du, derrigorrez. Pisua erosi gura duen

bategaz geratu da tratua egiteko, eta Tomasi laguntza eskatu dio. Eroslearen zain dauden bitartean, lagun biak elkarri belarria goxatzen arituko dira, adarra jotzen. Baina, halako batean, egoerak okerrera egingo du.

Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga igoko dira Arriolako oholtzara, 20:00etan.

Gontzal Mendibil

MUSIKA **ZORNOTZA**:: Abenduaren 19n



Poema musikatuak

Luis Baraiazarra poeta eta itzul-tzaile karmeldarrak San Joan Gurutzekoren idazlan guztiak itzuli zituen eta horietatik Gontzal Mendibilek musikaturiko 13 poema entzuteko aukera egongo da Larreako San Joan Bautista elizan, abenduaren 19an. Abeslari arratiarrak Ainhoa Tabuyo (Easo Abesbatza), Ángel Unzu (gitarra, buzukia), Iñaki Dieguez (esku-soinua) eta Alberto Rodríguez (gitarra, mandolina) musikariak izango ditu lagun oholtza gainean. Kontzertua 19:00etan hasiko da.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **La casa Gucci**
barikua 17: 19:00
domeka 19: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Fue la mano de Dios**
zapateria 18: 20:00
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00

:: Durango ZUGAZA

• **Spider-Man: No way home**
barikua 17: 19:00/22:00
zapateria 18: 18:00/21:00
domeka 19: 17:00/20:00
astelehena 20: 19:00
martitena 21: 19:00
eguzatena 22: 19:00

• **Mamá o papá**
barikua 17: 19:30/22:00
zapateria 18: 17:00/19:30/22:00
domeka 19: 17:00/19:30
astelehena 20: 18:00/20:15
martitena 21: 18:00/20:15
eguzatena 22: 18:00/20:15

• **La historia de mi mujer**
barikua 17: 19:00
zapateria 18: 19:30
domeka 19: 19:30
astelehena 20: 19:00
martitena 21: 19:00
eguzatena 22: 19:00


• **Encanto**
zapateria 18: 17:00
domeka 19: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Bolante bate historia**
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:15

• **Petite Maman**
martitena 21: 20:15

• **Trash (euskaraz)**
domeka 19: 17:00



Spider-Man
ZUGAZA ARETOAN

Abenduaren 17an

BERRIZ magia
Hodei magoa, ezinezkoaren logika, 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO berbaldia
'Komunikazio ez bortitza', 17:00etan, San Jose Jesuitak ikastetxean.

IURRETA ipuinak
'Txoriak txori', Alaitz Muro ipuin kontalariaren eskutik, 17:00etan, herri bibliotekan. 3tik 5 urtera arteko umeentzat (heldu batek lagunduta) eta 17:45ean 6 urtetik gorakoentzat. Helduentzako saioa, 19:00etan.

Abenduaren 18an

BERRIZ ipuinak
'Mari Domingi, altxor sekretua', 12:15ean, Kultur Etxean.

BERRIZ musika
'La costa de los mosquitos' (Travis Birds) musika ikuskizuna, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ ipuinak
'Ipuinetatik jabekuntzarantz' ipuin kontaketa saioa (Pituxa ipuin kontalaria), 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

GARAI musika
Gontzal Mendibil, 19:00etan, Elizaberrin.

OTXANDIO antzerkia
'Ez dok ero' (Tartean Teatroa), 19:00etan, eskolako gimnasioan.

ZORNOTZA musika
'Bidaia hemen eta orain' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 26an

ATXONDO ekitaldia
'Elkarrekin barne argia pizten' eguberri ospakizuna umeentzat eta gurasoentzat, 11:30etik 12:30ean, Alboan psikogunean. Ipuin kontaketa, kanta eta kandela egitea. Izen-ematea hilaren 20a baino lehenago: 688 774 295.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA

Matrikulazio epea zabalik:
Urtarrilaren 17tik 28ra
bitarte
Ate irekiak:
Urtarrilaren 15ean,
goizean zehar

*Izen ematea web orrialdean egin behar da.

ESKAINNTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



“Generoen artean jauzi egitea gustuko dut; ez dut bakar bati lotu gura”

2013. urtean 'Pendrive' kaleratu eta gero, Arrate Mardaras abadiñarrak 'Poli nire robota da' plazaratu du oraintsu



Arrate Mardaras Lejarreta

'Poli nire robota da' liburuaren egilea
ABADIÑO | 1960

HAUR LITERATURA • ARITZ MALDONADO
Arrate Mardaras idazle abadiñarrak 'Poli nire robota da' liburuak kaleratu du aurten. Robot baten eta ume baten arteko hartu-eman du ardatz eta "ez hain urruneko" etorkizun batean kokatuta dago.

Nor da Poli?

Poli robot bat da, mutiko baten konpainia robota. Poligaz duen hartu-eman oso garrantzitsua da berarentzat, lagun batez gain izan dezakeena. Horregaitik, ez du ulertzen zergaitik nagusiek ez duten tratatzen bere lagun baten beharko lukeen estimuagaz. Mutikoak, etxeak lan baterako,

etorkizuneko bizimodua zelakoa den azaldu behar die gaur egungo umei; etorkizuneko etxebizitzak, ikasketak, baratzeak, aisialdia eta bere familia zelakoak diren erakutsi behar dizkie umei. Hain urrunekoa ez den etorkizuna erakutsiko die.

Zelakoa da etorkizun hori?

Etorkizun digitala. Baina betiko elementuak ere badaude, betiko etxeak, adibidez, elementu berriekin, baratze-dorreak, besteak beste, paisaia konpartitzen dutenak. Aitagaz horrelako baratze-dorre batera joaten da. Amagaz, betaurreko birtualen laguntzaz bidaia birtualak eta jo-

lasak egiten ditu, era digitalaren erakusgarri direnak; oraingoan, hegazkin batetik salto egiten dute paraxutekin.

Ez hain urruneko etorkizuna dela diozu.

Gaurko eta geroako elementuak konbinatuta daude, hori baita logikoena etorkizun gertuko batean. Ez da hain urrutikoa istorioan ikusten dena, ageri diren elementu batzuk gaur egun jadanik existitu egiten dira; adibidez, betaurreko birtualak. Oraindino hain ohikoak ez badira ere. Azaldu gura dut, bestalde, irudi errealistak aukeratu ditugula libururako, etorkizuna bera delako

fikzioa eta horrek ere gertuago jartzen du etorkizun hori.

Fredrika Ulfströmegaz lan egin duzu. Zelan, ba?

Fredrika Ulfström ilustratzailea suediarra da, baina hemen bizi da orain urte asko. Askotariko lanak egin izan ditu, baina berarentzat ere lehenengo aldian izan da euskarazko album ilustratu bat kaleratzen. Jauzarrea proiektua zuzentzen duen Xabier Oterok jarri ninduen hartu-emanetan beragaz, eta oso eskertuta nago. Fredrikarentzat erronka izan da etorkizun horren irudiak sortzea. Adibidez, gaur egungo etxeen artean, sabairik ez duten

etxeak txertatzea. Umeen eta familiakoen aurpegiak eta oso erraz asmatu ditu.

Sortzeko prozesua bera berezia izan da, beraz.

Bai. Ingelesez moldatu behar izaten dugu gure artean. Aspaldian erabili bako hizkuntza berreskuratu dut Fredrikagaz. Ondo konpondu gara, nik buruan nituen ideiak polito eraman ditu irudietara.

Arazo gehiago izan dugu batzeko, asti faltagaitik eta bestelako kontuengaitik. Andrazko sortzaileok denbora gutxiago izaten dugu horrelako lanetarako, bestelako lan ugari egin behar izaten dugu eta. Aldatzen ari den joera dela diote, gizonzkoak familia kontuetan askoz gehiago inplikatzeko direla. Ia etxe guztietara heltzen den beharrezko berdintasuna!

Emakume sortzaileok denbora gutxiago izaten dugu sortzeko, baina badirudi joera hori aldatzen dabilela

Denon artean argitaletxeagaz publikatu duzu 'Poli nire robota da'. Zelan?

Hasieratik erakutsi zuten interesa, eta ni oso pozik nago eurekin. Ez da ohiko argitaletxea, bestelako irizpideak dituzte publikatzerakoan. Proiektu bat berezia dela iruditzen bazaie, edo balio artistiko handia duela, publikatu egiten dute. Asumitu egiten duten kostua da. Ez diete hainbesteko garrantzia ematen autorearen ize-nari edo merkatuaren irizpideei.

Zure lehenengo ilustrazio liburuak izan da.

Pendrive oso gustura egin nuen, eta hau ere bai. Helduentzako zein haurrentzako idaztea gustuko dut. Generoen artean jauzi egitea ere gustuko dut. Gainera, istorio honek harrera ona izango balu, jarraipena egitea gustatuko litzaiguke, album gehiago egitea beste istorio batzuekin, tartean Poli dagoela.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. **Salbuespenik gabe.**



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO OBJEKTUAK BERRESKURATzea

HARRAPATZE EGOERAK

IGOGAILUKO ZARATAK

365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917



Andra Mariko HH5. mailako haurren lanak egongo dira ikusgai.

Ttipia erakusketa Zornotzako Zelaieta zentroko areto nagusian dago ikusgai

Abenduaren 15ean inauguratu eta gero, obrak hilaren 23ra arte egongo dira ikusgai

LORALDIA • A.M.

Bilbon udaberrian antolatzen duen jaialdiaz gainera, Loraldia elkarteak bestelako ekimenak ere egiten ditu; Loraldia Eskola proiektua, besteak beste. Euskaraz garaturiko kultura garaikidea eskola adinetako pertsonen artean ezagutzera ematea da honen helburua. Horrela, udazken honetan erakusketa bat osatu dute Zornotzako Andra Mari ikastolan Ttipia proiektuaren bitartez eza-
guturiko lau artista plastikoren lanak oinarri hartuta. Abenduaren 15ean inauguratu zuten erakus-

keta, eta hilaren 23ra arte egongo da ikusgai Zornotzako Zelaieta zentroko areto nagusian.

HH5.eko ikasleek lau artista plastiko ezagunen ibilbide artistikoa ere ezagutu dute

Ttipia proiektuaren bitartez, HH5eko ikasleek Eider Eibar ilustrazilearen, Ainhoa Ortells margolariaren, Elena Mendizabal eskultorearen eta Eriz Moreno

argazkilariaren ibilbidea ezagutu dute, eta hori abiapuntu hartuta, esperimentazioagaz jolastuz artelanak osatu dituzte. Lan horietxek daude ikusgai erakusketan. Egitasmoagaz, "sentipenak adierazterakoan kulturak duen garrantziaz" ohartzen dira haurrak, Loraldia proiektuko esanetan. "Pintura, ilustrazioa, eskultura eta argazkigintza diziplinak lantzen dituzten artistak dira; hilabeteko esperimentazio abentura horretan sorturiko obrak ikusiko dira eta ziur erakusketak bisitaria harrituko dituela", gehitu dute.

Urratsen 'Galera' garaile 24 Ordu Digitalean lehiaketan

Urrats taldeak irabazi du film laburren Elorrioko lehiaketaren XVI. edizioa; 700 euroko saria irabazi dute

IKUS-ENTZUNEZKOAK • A.M.

Film laburren Elorrioko lehiaketa ezagunaren edizio berrian, zazpi taldek parte hartu zuten (bederatzik eman zuten izena, baina COVIDaren eraginez taldeetarikoa ezin izan zuten parte hartu), abenduaren 10ean eta 11n izan zen lehia. Zapatu gauean egin zen filmen proiektzioa, eta horren ondoren sari banaketa egin zuten. Elorrioko Arrapaladan antzerki taldeak aurkeztu zuen gala. Bertan jaki-

narazi zuten aurtengo edizioko irabazlea Urrats taldearen *Galera* zela; Banda Apartaren *Odiseoren paradoxa* eta Atabalak taldearen *Non hago?* izan ziren asteburuko beste lan saritu biak.

Aurtengo ediziorako proposatu duten gaia 'Askatasuna' izan da, erabili beharreko esaldia *hodei bakoitzak bere zilarrezko estaldura du*, eta objektua, luma. Lehiaketako epaimahaia Goiuri Aldekoa-Otalorak, Xabier Zabalak eta Iratxe Mediavillak osatu dute.



Sari banaketa ekitaldia Arriolan egin zuten.

Gai librean

Filosofiaren defentsan

Lehen urri zena are gehiago urrituko da datorren ikasturtetik aurrera. Espainiako Gobernuak atera berri duen hezkuntza dekretuak, LOMLOE delakoak, erabat bazter utziko du orain arte ere periferian egon den filosofia ikasgaia. Eskumen autonomikoen moldaketen arabera izango da katastrofea, baina Madrilatik datorren aginduak ia erabat desagerraraziko du filosofia hezkuntza-curriculumetik. Moldaketak moldaketa, katastrofea gertatzen ari da: pentsamendu kritikoa joera orokorra izatetik oso urrun dago. Kontrara, ia anekdotikoa da hezkuntza-sisteman joera horrek duen presentzia. Azken urteetan eskolaz eskola ibili denak jakingo du, oro har, filosofia ikasgaiari eta batez ere haren adar den Balio Etikoak ikasgaiari ze garrantzi gutxi ematen dioten hezkuntza komunitateko kideek.



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

Filosofia ikasgaia murriztearen ondorioak, baina, ez dira hezkuntzaren eremura bakarrik mugatzen. Filosofia balioa galtzen ari da, ikastetxeetan zein jendartean. Galera horrekin batera gure pentsamendua, zentzuna eta kritikarako gaitasuna ere kolokan daude. Filosofiak, hain zuzen ere, pentsatzen irakasten digu, pentsatzen laguntzen digu eta kritikoak izateko tresnak ematen dizkigu.

Hezkuntza lege berrian islatzen da gizartean orokortutako joera. Garrantzi handia ematen zaio ekintzailetzari, eskolan zein lanean. Ekintzailetzarako grina hori, oster, ez da sormenaren ikuspuntutik bideratzen. Gure ikasleei izpiritu ekintzailea eskatzen diegu, baina ekoizpena bideratutako alorretan. Gizarte bezala zentratuago gaude egitean, egotean baino.

Egonean egotea aldarrikatu nuen aurreko Anbotoko zutabean. Hari har-

tatik tiraka, pentsatzea dagokigu ea hezkuntza (eta, horrenbestez, gure bizimodua) zertan zentratu behar den: modu aseezinean mundua egitean, ala kritikotasunez munduan egoten.

Zorionez, filosofia presente dago gizakiak egiten dituen jardun guztietan, eta ematen diogun garrantzia handia zein txikia izan filosofiak hortxe jarraituko du, temati, galderak eginez eta gizakia pentsatzera bultzatuz. Modu elegantean adierazi zuen Heinrich Heinek filosofiaren unibertsaltasuna: "Adierazi egidazue bizitzaren enigma,/hainbeste bururen gogoeta gaia izan den/enigma larri zaharra,/hieroglifiko txanodun buruek,/kapela belzdun eta turbandun buruek,/ileordun buruek eta beste mila/giza buru pobre eta izerditsuk egin baitute/galdera hau: zer da gizakumea?/nondik heldu da?/eta nora doa?".

Hiri Probako hutsunea betetzeko, adin guztiei begirako herri lasterketa antolatu dute Iurretan

Bidezabalek iragarri du 2022ko udaberrian bueltatuko dela Hiri Proba; lasterketa txiki bat antolatu dute domeka honetarako

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Iaz ez zen Iurretako Hiri Proba jokatu eta aurreko urtean ez dute antolatu. Bidezabal atletismo klubak "pandemia eta beste antolaketa arazo batzuk" argudiatu ditu ekimena bertan behera uzteko. Hurrengo aldia 2022ko udaberrian egingo dutela iragarri dute. Orduan bueltatuko dira lasterketen munduko izen handiak Iurretara. Baina, bien bitartean, parentesi luze hau arintzeko, lasterketa xume eta herrikoia bat egingo dute do-

mea honetan Iurretako Udalaren laguntzagaz. Adin guztietarako lasterketak egongo dira: benjamin-aurrekoetatik nagusietaraino. Lehenengo lasterketak 11:30ean hasiko dira eta elite mailakoari 12:30ean ekingo diote. Nagusien probak lau kilometroko luzera izango du.

Izen-ematea aurretik egin behar da, kalean itsatsi dituzten karteletan ageri den QR loturan sartuta. Bidezabal atletismo taldearen sare sozialetan ere aurkitu daiteke ekimeneko kartela.



2019an Iurretan antolatutako Hiri Probako argazki bat.

Unai Badiolak sorpresaz beteriko agur partiduagaz amaitu du pilotari ibilbidea

Badiolak Augusto Ibañez Titin III.agaz jokatu zuen bere ibilbideko azken partidua

PILOTA • J.D.

Unai Badiola pilotari iurretarrak amaiera eman dio 30 urteko ibilbideari. Joan zen zapatuan jokatu zuen bere azkeneko partidua eta oso berezia izan zen, sorpresaz betea. Badiolak Augusto Ibañez Titin III.agaz osatu zuen bikotea. Biek 22-20 irabazi zuten Bereinkuaren eta Diezen kontra.

Partiduaz harago, frontoiko giroa ere azpimarratzekoa izan zen. Kepa Arroitauregi pilotalekua lepo bete zen Badiolaren agurrerako. Laixiar irrati libreko kideek irratsaio berezia egin zuten eta ekitaldian zehar ez ziren dantzariak eta bertsolariak falta izan. Gorka Lazkanok egin zuen bertsotan, eta luze barik Badiolak berak ere bai.



Unai Badiola agur partiduko pilotariekin eta pilota eskolako gaztetxoekin.

Gontzal Murgoitio Euskadiko Kros Txapelketa irabazi du

Korrikalari elorriarrak Amurrioko proban lortu zuen txapela

KORRIKA • J.D.

Joan zen domekan Euskadiko Kros Txapelketa jokatu zen Amurrioko proban. Gontzal Murgoitio elorriarrak irabazi zuen lasterketa maila absolutuan eta 23 urtetik beherakoen kategorian, eta berak jantzi zuen Euskadiko txapeldu-

naren txapela. Durango Kirol Taldeko korrikalariak 33 minutu eta 28 segundoko marka egin zuen. Bestalde, taldekako sailkapenei dagokienez, Durango Kirol Taldeak bigarren egin zuen gizonen kategorian, eta hirugarren emakumeen kategorian.



Gontzal Murgoitio podiumean.

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA

946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779



HEKi
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

f Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketa
Urte barri on!

Aimar Morgaetxebarria Olazar txapelketako finalera sailkatu daiteke bigarren urtez segidan

Atzelari zornotzarrak, Espinal aurrelariagaz batera, Etxebarria-Altuzarra bikotearen kontra jokatu du hilaren 23an

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Aimar Morgaetxebarria zornotzarrak Olazar txapelketako finalerdia jokatu du datorren eguenean, 21:30ean. Espinal aurrelari duela, Etxebarria eta Altuzarra izango ditu kontrario.

Helduz gero, Morgaetxebarria-arentzat Olazar txapelketako bigarren finala litzateke. Iaz, COVIDak baldintzaturiko txapelketa laburragoan, ezin izan zuen txapela jantzi. Karregalek eta biek etsi egin behar izan zuten Mata-Irurita bikotearen aurka.

Adituek finalerdi parekatua aurreikusten dute. Morgaetxebarria sasoian dago eta atzean nagusitzen bada partidua euren alde ipini daiteke. Kontuz ibili beharko dute



2019an irabazitako Cafes Baque txapelketako txapelari Olazarrekoa gehitu diezaioke aurten Morgaetxebarriak.

Gizonen lau t'erdiko finala erabakita dago: Ruiz de Larramendik eta Olaetxeak jokatu dute

dagoeneko: Ruiz de Larramendi eta Olaetxea. Ez dago faborito argirik. Biak sakatzaile onak dira eta min egin dezakete horretan. Jokoan, Olaetxeari pilota luze erabiltzea gustatzen zaio eta Ruiz de Larramendi, oster, gehiago da joko motzeko pilotaria. Aurkaria norbere jokamoldera ekartzen duen pilotariak asko egin da izango du finalean.

Emakumeen lau t'erdikoa ere antolatu dute Larrarte, Aldai, Gara eta Arrizabalaga pilotariekin

Aurten emakumeen lau t'erdiko txapelketa ere antolatu dute, lau pilotarigaz. Lehenengo

finalista atzo erabaki zen, Larrarteren eta Aldairen arteko partiduan. Bigarren finalerdia hurrengo eguenean jokatu dute Garaik eta Arrizabalagak. Lauren artean ez dago faborito argirik.

Final guztiak abenduaren 31n jokatu dituzte, 16:15ean hasita, Zaldibarko Olazar pilotalekuan.

Umeei begirako atezainen kanpusa antolatu dute Abadiñon

KANPUSA • J.D.

Andres Leria eskolak 5etik 14 urtera arteko gaztetxoei begirako atezainen kanpusa antolatu du Abadiñoako Astola futbol zelaian. Txanda bi daude auzkeran: abenduaren 27tik 31ra (125 euro) eta urtarrilaren 3tik 7ra (100 euro). Aste bietan ere parte hartu daiteke, 200 euro ordainduta. Ekimenak Abadiño futbol klubaren eta udalaren laguntza du.

Kanpusa egin eta gero, atezain gazteei begirako eskola hasiko da martxan Astola futbol zelaian

Bestalde, atezaintzako eskola urtariletik aurrera hasiko da martxan, kasu honetan ere Astola futbol zelaian. 6tik 15 urtera arteko atezain gazteei zuzenduriko klaseak domeka goizetan edo arratsaldeetan izango dira. Eurretan ariketa teknikoak nahiz taktikoak egingo dituzte eta benetako partiduetako egoeak entrenatuko dituzte.

Ekimen biei buruzko informazio gehiago escueladeportero-sandresleria@gmail.com helbide elektronikoan eta 675 119 470 telefonoan eskuratu daiteke.

Jokaldia

Enegarrena eta azkena

Oinatz Bengoetxearen ibilbide profesionala urtarilaren amaieran bukatuko dela jakinaren gainean izango zarete. Gainera, horrekin batera, pilotaren urrezko belaunaldi baten zikloa ere itxiko da. Azken bost urteotan Berasaluze, Barriola, Irujo (bihotzeko gaitz batek behartuta) eta Aimar Olaizola izan dira, beste batzuen artean, ibilbide oparo baten ondoren erretiroa hartzea erabaki dutenak. Baina bada alderik aipatutakoen eta Oinatzaren agurren artean. Izan ere, Irujok izan ezik, gainerakoek azken etapa beraiekin gustura diseinatu ahal izan zuten; ez, ordea, leitzararak.

Albistea argitara eman zen momentutik, asko hitz egin da Oinatzek hamaika aldiz aldarrikatu duen nahiaz; profesioaletan 20 urteko ibilbidea osatzea, alegia. Asegarce/Baikori lau txapel eman dizkion pilotariak kon-



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

"Kontratua 10 hilabetez luzatzea besterik ez zuen eskatu, baina enpresaren ezetza jaso zuen"

tratua 10 hilabetez luzatzea besterik ez zuen eskatu, baina enpresaren ezetza jaso zuen. Leitzarari egindako enegarren gutxiespena izan zen; bai azkena ere.

Enpresa-arloan aditua izan gabe, akordio horretatik etekin handia atera zitekeela uste dut. Izan ere, Bengoetxeak mugiarazten duen zale andana eta urrira arteko jaialdia (tartean, udakoak) osagai ezin hobeak liratekeela uste dut enpresaren interes ekonomikoa, pilotariaren ametsa eta zaleen guraria asebetetzeko. Are ulertezinagoa zait enpresaren era-

bakia, greba garaian, pandemiaren aitzakian, diruz gaizki zegoela behin eta berriz zabaldu ondoren. Orduan ez nuen sinetsi, baina orain gutxiago.

Bidegabekeriak alde batera utzita, eman diezaiozun merezi duen garrantzia Bengoetxearen ibilbideari. Arestian aipatu ditudan txapelez gain, beste hiru final gehiago ere jokatu ditu (baita lesio bategatik jokatu ezin izan zuen buruz-buruko beste batera iritsi ere), Nafarroako lau t'erdiko hiru txapelaren jabe da eta eskuz banakako Masters-a ere irabazi zuen. Gainera, pilotaren historian hiru diziplinatan txapelak irabazi dituzten zazpi pilotarietako bat da.

Asteartean jarri ziren azken partidurako sarrerak salgai eta 7 minutu eskasean saldu ziren denak. Ikusi da, beraz, enpresak ez duela Bengoetxearen figura zaleok bezainbeste baloratu.

DURANGALDE



Astxikiren izaera bikoitza

Sagastako azken bazterrera joanda, bisitariak berehala sentituko du txikia izatearen handitasuna. Izaera bikoitz hori. Astxikik ondotxo dakielako bera dela lehenengoa eta bera azkena. Lehenengoa inguruko tontorren aldean igoerarik erosoena berak eskaintzen duelako. Eta azkena, erresuma zahar baten kontrako erasoei azkenera arte eutsi zielako.

KO TXOKOAK ?



Mañaria errekaren egarria

Mañaria errekaren egarria Urkiola, Sai-
bigain eta Errialtabaso aldeko urak jasota
asetzen da. Erleabe aldeko eta Urkuleta al-
deko urak edanda. Bere ibilgua lasaia izaten
da normalean, baina egunotako uriolek
nabarmen handitu dute bere egarria.
Izurtzarako eta Durangorako bidea
hartu eta gero, aseta ailegatu ohi
da Ibaizabalera.



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 17 · 09:00-09:00	
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:0	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 20 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
ZAPATUA, 18 · 09:00-09:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-13:30	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	MARTITZENA, 21 · 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	EGUAZTENA, 22 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-14:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	EGUENA, 23 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO
DOMEKA, 19 · 09:00-09:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	09:00-22:00
	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA



Zorionak, **Manex (874. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 **DURANGO**
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Abenduaren 16an **Telmok** 8 urte egingo ditu eta abenduaren 21ean **Martinek** 10 urte. Hau bai loteria gurea, sari potoloa eta pedrea! Mosu handi-handi bat.



Martitzenean, abenduak 14, gure **Garik** 3 urte ein abezan! Zorionak etxeko danan partez, laztana!



Eguaztenien, abenduak 15, izeko **Jaionen** urtegune izen zan. Zorixonak, Jaione, etxeko guztixen partez!



Abenduaren 15ean **Zuriñe Nogales Ansorreguik** urteak egin zituen. Zorionak eta opari asko izan ditzazula.



Zorixonak, bihotza! 9 urte jada. Ze neskato handia egiten ari zaren. Maite zaitut!



Zorionak Iruñan bizi dan **Izaro Argos Velerdaseri** bere bigarren urtegunean asko maite duten Berrizko lehen-gusu Gari, Lier eta batez be amama Maribiren partez.



Abenduaren 12xen **Zigor Gerediaga Inguzan** urtegune izen zan. Zorixonak etxekoen eta lagunen partez. Holakue izeten jarraitu!



Zorionak, **Ander!** Ajearekin edo ajerik gabe, badakigu ondo baino hobeto ospatuko duzula zure 26. urteguna. Espero mezu honek horretan lagundu izana! Besarkada estu-estu Durango-ko zure lagunen partez!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 12° / 4° ☁️

DOMEKA 🌧️ 12° / 3° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 13° / 3° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 14° / 4° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 11° / 7° ☁️

EGUENA 🌧️ 11° / 6° ☁️





GABONETAKO EGITARAUA

GUTUN POSTAL LEHIAKETA, TAILERRAK,
IKUSKIZUNAK, OLENTZERORI HARRERA, TXU TXU
TRENA, GABONETAKO PINA, IPUIN KONTALARIA,
ERREGE MAGOEN KABALGATA...

info +: www.iurreta.eus



“Ofizio bat baino gehiago, nire bizitzaren zati bat da txoriak haztea”

Kike Cavitek 32 urte daramatza kanarioak eta hegazti exotikoak hazten; orain urtebete haztegia zabaldu zuen Zornotzan, eta mota askotariko 400 txori inguru ditu bertan



Enrike Cavite Ruiz

Hegazti hazlea

ZORNOTZA | 1968

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Diamante de Gould, Diamante Mandarin, Isabelita del Japon, Lori Arcoiris edo Ninfak. Enrike Cavitek hegazti exotikoak eta 10-12 kanario mota hazten ditu Zornotzan duen haztegian. Gainera, txoriak zaintzeko aholkuak ematen ditu sare sozialen bitartez.

Hiru hamarkada bete dituzu txoriak hazten. Nondik datorkizu zaletasuna? Aititarendandik, denbora asko egiten nuen beragaz. Eta aitari ere gustatzen zitzaizkion txoriak. Beti izan dut lotura txoriekin, eta orain dela gutxi arte, etxean hazi ditut; 12 kanario-bikote izan ditut. Esan behar dut urtean errunaldi bi di-

tuztela nik hazitako txoriek, ez diet uzten piloa ugaltzen. Izan ere, ez dit probetxua ateratzeko. Txori txapelketetan ere parte hartzen dut, Portugalgo Arlekin kanarioagaz. Iaz Portugalen egin zen mundu mailako txapelketan Espainiako estatuko onena izan nintzen.

Txori-haztegia ipini zenuen orain urtebete, eta orain saldu ere egiten dituzu. Hala da, bai. Dena dela, etxean hazi izan ditudanean, asko oparitu egin ditut, pandemia sasoian ere bai. Pertsona nagusiei batez ere, jakin dudanean norbaiti txoria hil zaiola, adibidez. Konpainia egin ziezaie-keela pentsau dut eta 12 bat txori oparitu ditut, kaiola batez ere eta kilo

bat jatekogaz. Gehienak Zornotzan bertan oparitu ditut, baina Duran-gora ere eramane dut baten bat. Asko

“Txoriak etxean hazi izan ditudanean, asko oparitu egin ditut, pandemia garaian ere bai. Pertsona nagusiei batez ere”

eskertu izan didate eta une politak bizi izan ditut. Jende askok berba egiten dugu txoriekin, eta batzuek uste dute zoratuta gaudela; ez dute ulertzen. Baina laguntasun handia

ematen dute. Opor egunetan txoria gugaz uzteko aukera ere ematen dut eta txorien zaintzagaz loturiko premiei erantzuten ahalegintzen naiz, baina ez naiz albaitaria.

Animaliak erreskatatzen ere lan egiten duzu. Animalien Lagunak elkarteak arduraduna zara. Zein da zuen lana?

Kale katuak harrapatu, antzutu eta kalera bueltatzen ditugu gero. Jauregibarria parkeko urmaelaz eta bertako animaliez ere arduratzen gara. Gainera, kalean topaturiko hainbat animalia ekartzen didate herritarrek: dortokak, hamsterrak, txoriak... Azkenengoan, zazpi katu utzi zituzten kaxa batean. Aurt-ten, 200 txori suspertu ditugu, eta animalia basoan hazitakoa bada, ekarri didan pertsonari bueltatzen diot berak askatu dezan. Saiak eta arranoak ere jaso ditugu, eta ezin badut ezer egin Aldundira deitzen

“Kalean topaturiko hainbat animalia ekartzen didate herritarrek: dortokak, hamsterrak, txoriak... Azkenengoan, zazpi katu utzi zizkidaten kaxa batean”

dut; adibidez, hego bat apurtuta ba-du. Berdin orkatz zaurituekin.

Ofizio bat baino gehiago dituzu txoriak?

Bai, nire bizitzaren zati bat da. Egutero 10-12 ordu egiten ditut txoriekin, urtean 365 egunetan. Etekin ekonomikoa lortzeko negozioa gu-rra banu, ez nuke txoririk haziko, ha-zita erosiko nituzke gero saltzeko.

Zer hartu behar da kontuan kanarioak edo txori exotikoak hazteko?

Txoria osasuntsu egotea zaindu behar da, barrutik eta kanpotik, eta errunaldian garbitasuna ezinbesteko da. Ugaltzeko, emea loditu egin behar da, eta arra argaldu. Txoriak aktibo egotea ere inportantea da. **Txoria zaintzeko hiru gomendio.**

Kaiolaren garbitasuna ezinbestekoa da, eta tenperatura konstante bat mantentzea: udatik negura bal-koian izan genezake, ohitzen joate-ko. Baina ezin da korronterik egon. Balkoian dagoen txoria ez dugu gauean sukaldera sartuko; olioia, ta-bakoa... oso kaltegarriak dira, baita txoria gure kontura medikatzea ere.

Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea/Jubilatua



Konpondu beharrekoa

Administrazio publikoak gero eta zerbitzu gehiago jartzen ditu enpresa pribatuen eskutetan eta kasu askotan herritarrok salduta uzten gaituzte ez die-lako jarraipenik egiten eta zer-bitzua gaizki ematen badute ez dielako konturik eskatzen, ezta zuzentzen behartu ere.

Adibidez, anbulantzien ka-suan. Urgenteak ez diren ka-suetan pazienteak bizilekuan hartzen dute eta berriz etxera itzultzen dute kontsulta pasa ondoren.

Dudarik gabe oso zerbitzu egokia eta txalotzekoa, baina kudeaketa? Nik ez dakit nor den koordinadorea, baina askotan pazienteok orduak eman behar ditugu kontsulta ondoren etxe-ra itzultzeko.

Basurtutik etxeratzeke 4 ordu itxaroten egondakoa naiz eta nahiko pazienteek esan dida-te hori oso arrunta dela.

Arazoren bat badugu telefo-no bat ematen dizute deitzeko eta arazoa bideratzeko, baina zertarako? Deitu eta 25 minutu egona naiz erantzunaren zain eta erantzuna: “itxaron, gure agenteak okupatuta daude” hori behin eta berriz, eta asper-tuta deia moztu behar.

Askotan pazienteak nagu-siak dira, urduri jartzen dira edo desegoki daude, minarekin edo nekaturik.

Halakoren baten anbulan-tzia heltzen denean gure “ma-laletxea” txoferrarekin husten dugu eta beraiek ez dute erru-rik. Txoferren alde esan behar oso profesionalak direla eta askotan beraiek ere txarto pa-satzen dutela gure inpotentzia ikusita.

Ea behingoz dagokionak es-kua hartzen duen eta zerbitzua hartu duen enpresa berri hau tente ipintzen duen paziente guztion mesedean. Hala bedi!

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

FAROLAK



INFRAGORRIAK



AIRE KANOIA



ERRADIA-DOREAK



HEZETASUN KENGAILUAK



MOTOBONBAK



BONBA URPEKARIAK

